

Euskaraz ikasi nahi dugu! Hizkuntza eskubideak errespetatu!

Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno askotan erakutsi zuen bere euskarafobia aurreko legegintzaldian. Bazirudien Geroa Bairekin eta Ahal Dugurekin koalizio gobernuko kide izateak zer edo zer goxatuko zuela bere sena glotofobikoa, baina berehala jakin zen horrelakorik ez zela gertatuko akordio programatikoaren hezkuntzari buruzko atalean. Bertan ez da euskara inon ageri eta ez da aipatzen honako hau besterik: “hizkuntza ereduak integratuko dituzten ikastetxeak sustatzea”.

Joan den ostiralean, kontseilariak akordio programatikoko hezkuntzako atalaren betetze mailaren inguruan, emandako prentsaurrekoa propaganda eta autokonplazentzia ariketa huts bat izan zen, zoritxarrez. Euskarari egindako aipamenean esan zuen euskarazko hezkuntza eskaintza bermatua dagoela. Tamalez, hau ez da egia.

Lehen adibidea izan genuen 2019-2020 ikasturteko matrikulazioarekin, ez baitzuen baimendu D ereduako lerroa irekitzea Mendigorrian. Familiak urte guztian borrokatu ziren murgiltze eredu lortzeko eta haien ahaleginari esker erdietsi dute D eredu 2021-2022 ikasturterako izatea.

2019-20 ikasturtean hasi beharrak ziren euskaraz ematen Irakaskuntza Artistikoa, Hizkuntzen Irakaskuntza, Kirolen Irakaskuntza eta Helduen Irakaskuntza, espezialitate horietan diharduten irakasle gaituekin, eskaintza gero eta handiagoa izan zedin. Hurrengo ikasturtean Kirolen Irakaskuntza baizik ez da hasiko, Irunberrin.

Pirinioetako ikasleak 16 urterekin derrigortuta daude beraien eskualdea uztera, baita 80 edo 90 kilometrora mugitzera, ikasten jarraitzeko. Orain arte Iruñeko ikastetxe batean tokia bermatzen zitzaie, baina hori bertan behera utzi du dekretu berriak, jakin gabe ikasleak plaza edukiko duten edo ez. Despopulazioarekin zigortutako eskualdeari ezarritako bigarren zigorra.

Tafallaldean eta Zangozaldean DBH euskaraz ikasten duten ikasleek ezin dituzte beraien ikasketak Tafallan edo Zangozan jarraitu, A-G eredu ikasleek bezala. Egunero Iruñerako autobusa ordaindu behar dute ozta-ozta Iturramako Ikastetxeko klaseetara heltzeko. Aurtengo baremo aldaketa dela eta, ez zaie bermatu tokia ikastetxe horretan eta, beste ikastetxeetan sakabanatzeko arriskuaz gain, ez dute izanen garraio aukera egokirik klasera garaiz heltzeko. Bazterketa bikoitza: Tafallan edo Zangozan euskaraz ezin ikasi eta Iruñean ikastetxerik egokiena ez dute bermatua izanen.

D ereduan ikasi nahi duten Beriaingo ikasleei garraioa jartzen zitzaie Hegoalde Ikastolara joateko. Datorren ikasturtean horietako ikasle batzuei garraioa kenduko die Departamentuak, bere hitza janez, eta Noaingo D-PAIra joatera derrigortuko ditu PAI programa inosatuz. PAItik atera nahi zuten Castejongo ikasleak Gimeno mila traba jarri eta derrigortu ditu Lehen Hezkuntza PAI programan bukatzera, beraien gogoaren kontra.

Aurreko legegintzaldian Irakasleentzako Laguntza Zentroetan euskarazko prestakuntzak gorakada xume bat izan arren, ikasturte honetan % 10era ez da iristen. Euskaraz diharduten irakasleek ikasitakoa egokitzeko edo materialak itzultzeko latz egin behar dute lan maiz, prestakuntza hori beren jardunean txertatzeko.

Castejonen, bertako D eredu ikasleek entzumeneko eta mintzairako espezialista behar dute eta, momentuz, Hezkuntza Departamentuak ez die esleitu. Egoera hau A-G eredu gertatzea pentsaezina da eta, borondaterik balego, erraz konpon liteke, entzumeneko eta mintzairako espezialista euskalduna jarriz.

Batxilergoko D eredu ikasleak derrigortuta daude astero lau ikas-saio gehiago egitera. Landa eremuko ikastetxeetan DBHko D eredu ikasleei jantoki zerbitzua kendu eta batxilergokoekin batera garraio zerbitzua probesteagatik ikas-saio gehiago jartzen ari zaizkie bai ikasleei, baita irakasleei ere. Adibidez, datorren ikasturteari begira eta beraien iritzien kontra, Leitzan jantoki zerbitzua kenduko zaie DBHko ikasleei.

Udal askotako haur eskoletan oraindik ezinezkoa da euskaraz ikatea. Gainera, Iruñeko Udalaren haur eskoletan euskarazko eskaintza nabarmen murriztu dute eta, horren ordez, sasiingeleseko programa ezarri dute.

Lanbide Heziketan euskarazko eskaintza nahiko urria da. Gaztelaniazko ziklo batzuk zenbait ikastetxetan ematen diren bitartean, euskaraz ez dira inon ematen. Esparru honetan ere, ingelesa bultzatzen ari dira euskararen kaltetan.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan bakarrik ikas daitezke oso-osorik Haur eta Lehen Hezkuntzako Irakasleen graduak. NUPek ingelesaren eskaintza lehenesten du euskarazko eskaintzaren gainetik, ikasle euskaldunen kopurua urtez urte handitu arren. Euskarazko Bigarren Hezkuntzako Irakasletza masterra euskara eta euskal literaturara mugatzen da.

Bada, garbi dago koalizio gobernu honek ikasle euskaldunak baztertzeaz gain, zama gero eta astunagoa ezartzen diela ikasketak euskaraz egin nahi izanez gero. Penagarria benetan, noiz eta beste politika batzuek egiteko aukera paregabea duenean herritarren borondateari jarraikiz. Horren aurrean, gaur kolektibo kaltetu guztiak bildu gara gure euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzeko eta inposizio euskarafobikoak gaitzesteko.

Azkenik, gogora ekarri nahi dugu bolo-bolo dabilzala Nafarroako Gobernuak Administrazioan euskararen erabilera arautzeko prestatzen ari den dekretuaren inguruko susmo txarrak. Azken dekretua bertan behera gelditu ondoren, inposatutako zonifikaziotik abiatuta, dekretu berriak Nafarroa Garaiko herritarren hizkuntza eskubideak bazterkeriari babes legala emanen omen dio, lan deialdi publikoetan bertako hizkuntza den euskara baloratu beharrean, atzerriko hizkuntzak kontuan hartuko lirateke, esate baterako. Hori dela eta, bat egiten dugu eta gonbite luzatu nahi dugu euskaraz bizitzeko eskubidearen alde, Euskalgintzaren Kontseiluak uztailaren 2an arratsaldeko 18:30ean, Baluarteko plazatik abiatuko den manifestazio deialdian parte hartzeko. Hizkuntza eskubideak ez dira negoziatzen, errespetatu baizik.

Deitzaileak: LAB, STEILAS eta ELA

Babesleak: Ernai NUP, Euskal Herrian Euskaraz, HE Gurasoak, Hizkuntz Eskubideen Behatokia, Ikama, NUPeko Euskara Taldea eta Sortzen.

Queremos estudiar en euskera. ¡Respetad los derechos lingüísticos!

El consejero de educación de Navarra, Carlos Gimeno, protagonizó la legislatura pasada continuas muestras de euskarafobia. Parecía que ser miembro de un gobierno de coalición con Geroa Bai y Podemos rebajaría su instinto glotofóbico, pero el primer síntoma de que esto no sucedería quedó patente en el capítulo educativo del acuerdo programático, que no habla del euskera en ningún momento, y únicamente hace mención de “promover centros escolares que integren diferentes modelos lingüísticos”.

La rueda de prensa del pasado viernes del consejero sobre el grado de cumplimiento del apartado de educación del acuerdo programático fue, desgraciadamente, un mero ejercicio de propaganda y autocomplacencia. En la mención al euskera manifestó que la oferta educativa en dicha lengua está garantizada. Lamentablemente, esto no se corresponde con la realidad.

El primer ejemplo lo observamos en la matriculación de curso 2019-2020, ya que no autorizó la apertura de una línea de modelo D en Mendigorria. Las familias lucharon durante todo el año para conseguir el modelo de inmersión y finalmente gracias a su esfuerzo lo han logrado para el curso 2021-2022.

El curso 2019-20 se debería haber iniciado el desarrollo de las Enseñanzas Artísticas, Enseñanzas de Idiomas, Enseñanzas Deportivas y Enseñanzas de Adultos en euskera con el personal que ya trabaja en dichas especialidades y está habilitado para impartirlas, para ir ampliando progresivamente la oferta. El próximo curso únicamente comenzarán las enseñanzas deportivas en Irunberri.

El alumnado de la zona pirenaica está obligado a abandonar su comarca a los 16 años y a desplazarse hasta 80 y 90 kilómetros para continuar sus estudios. Hasta ahora se les garantizaba plaza en un instituto concreto de Iruñea, pero esta medida ha sido suspendida, sin que se haya concretado una solución al respecto, lo que supone un doble castigo a una zona ya muy afectada por el despoblamiento.

Estudiantes de la ESO en euskera en las zonas de Tafalla y Zangoza no pueden continuar sus estudios en sus localidades. En ambos casos, si quieren estudiar Bachillerato en euskera tienen que sufragar diariamente un autobús para desplazarse a Iruñea. Debido al cambio de baremo de este año, no se les ha garantizado espacio en su centro de referencia y, además del riesgo de dispersión en otros centros, pueden encontrarse con que no tienen una alternativa de transporte adecuada para llegar a clase a tiempo. Doble marginación: no podrán estudiar en euskera en Tafalla o Sangüesa y no tendrán garantizado un instituto y un transporte adecuados en Iruñea.

El alumnado de Beriain que deseaba estudiar en el modelo D contaba con transporte para ir a la Ikastola Hegoalde. El próximo curso parte de ese alumnado no contará con el servicio ordinario de transporte para acudir a ese centro, el Departamento de Educación no cumplirá su palabra y les obligará a acudir al centro de Noain, donde se imparte el modelo D con programa PAI.

Tras un leve aumento durante la pasada legislatura de la formación en euskera de los Centros de Apoyo al Profesorado (CAP), el porcentaje para este curso no llega al 10 %. El profesorado que trabaja en euskera debe realizar frecuentemente un sobreesfuerzo de adaptación de lo aprendido y/o de traducción de materiales para poder implementar esta formación en su práctica profesional.

En Castejón el alumnado del modelo D necesita una especialista en Audición y Lenguaje que, por el momento, no ha sido asignada por el Departamento de Educación. Esta situación es impensable en el modelo A-G y, si hubiera voluntad, podría resolverse fácilmente, contratando a una especialista bilingüe.

El alumnado del modelo D de Bachillerato está obligado a realizar cuatro sesiones semanales más. En los centros rurales se está suprimiendo el servicio de comedor al alumnado del modelo D de la ESO y se están poniendo más sesiones lectivas –tanto al alumnado como al profesorado- por aprovechar el servicio de transporte junto al de Bachillerato. Por ejemplo, de cara al curso que viene, y en contra de su voluntad, se va a suprimir el servicio de comedor en la ESO de Leitza.

En muchas escuelas infantiles municipales todavía es imposible estudiar en euskera. Además, en las escuelas infantiles del Ayuntamiento de Iruñea se ha reducido drásticamente la oferta en euskera y, en su lugar, se ha implantado un programa bilingüe pseudoinglés.

La oferta en euskera en Formación Profesional es bastante escasa. Mientras que algunos ciclos en castellano se imparten en varios centros, en euskera no se imparten en ninguno de ellos. También en este ámbito, se está impulsando el inglés en detrimento del euskera.

En la Universidad Pública de Navarra únicamente se pueden cursar íntegramente en euskera los grados de Profesorado de Educación Infantil y Primaria. La UPNA prioriza la oferta de inglés por encima de la oferta en euskera, a pesar de que el alumnado euskaldun aumenta año tras año. Respecto al máster de Educación Secundaria en euskera, se limita exclusivamente al de lengua y literatura vasca.

Queda claro que este gobierno de coalición no sólo excluye al alumnado euskaldun, sino que le impone una carga cada vez más pesada si quiere cursar sus estudios en euskera. Resulta verdaderamente penoso, cuando tiene la opción de realizar otras políticas de acuerdo con la voluntad de la ciudadanía. Ante ello, hoy nos hemos reunido todos los colectivos afectados para reivindicar nuestro derecho a estudiar en euskera y rechazar las imposiciones euskarafóbicas.

Por último, queremos recordar los malos augurios que circulan respecto al decreto que prepara el Gobierno de Navarra para regular el uso del euskera en la Administración. Tras la suspensión del último decreto y partiendo de la zonificación impuesta, el nuevo decreto proporcionaría cobertura legal a la exclusión de los derechos lingüísticos de la ciudadanía de la Alta Navarra, en lugar de valorar el euskera como lengua propia en las convocatorias públicas de empleo, por ejemplo, se tendrían en cuenta las lenguas extranjeras. Por ello, nos sumamos y queremos invitaros a la manifestación organizada por Euskalgintzaren Kontseilua a favor del derecho a vivir en euskera, esta partirá el 2 de julio a las 18:30 horas de la plaza del Baluarte. Los derechos lingüísticos no se negocian, sino que se respetan.



Convocantes: LAB, STEILAS y ELA

Apoyan: Ernai NUP, Euskal Herrian Euskaraz, HE Gurasoak, Hizkuntz Eskubideen Behatokia, Ikama, NUPEko Euskara Taldea y Sortzen.

Iruñea, 24-06-2021